



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

0e1c8ea71674a011a8004ffa7f701ba178e9a1592a3d87a67c540ed5b522fb75

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2021EKO EKAINAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2021.06.30

Tolosako Udaletxean, 2021eko ekainaren hogeita hamarrean, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburur Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Nerea Letamendia Belloso (EAJ-PNV)
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBILDU)
Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU)
Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EHBILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EHBILDU)
Olatz Artola Apezteguia (EHBILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EHBILDU)
Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU)
Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE)

Jarduneko idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso



Eguneko gai-zerrenda

1. Haurren hiria. Mintza Txokoa Tolosako Udalbatzari landutako proposamenen azalpena egitea eta Tolosako herriari ikasturtean landutakoa ezagutaraztea.
2. Akta hau onartzea:
2021eko maiatzaren 27ko Ohiko Osoko Bilkurakoa (Akta elektronikoa).
3. 2021. urteko lanpostu zerrenda behin betiko onartzea eta hasierako izaeraz aldatzea. EHBILDUK aurkeztutako emendakina.
4. Onartzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua arautuko duen adjudikazioaren kontratazio espedientea, eta lizitazioari hasiera ematea.
5. Onartzea itxitako ekitaldiko fakturak.
6. Hasierako onarpena: 2021eko dirulaguntzen eranskina aldatzea: 2-2021.
7. Mozioa: Ekainaren 28a. Gay, Lesbiana, Transexual, Bisexual, Intersexual eta Queeren eskubideen Nazioarteko Eguna.
8. Torturaren biktimak babesteko nazioarteko eguneko mozioa.
9. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. HAURREN HIRIA. MINTZA TXOKOA TOLOSAKO UDALBATZARI LANDUTAKO PROPOSAMENEN AZALPENA EGITEA ETA TOLOSAKO HERRIARI IKASTURTEAN LANDUTAKOA EZAGUTARAZTEA.

Arazi enpresako kideak proiektuaren berri eman du, hau da Tolosako haurrak ikasturtean zehar egindako lanaren ondorioak.

Jarraian, ikasturtean zehar egindako lana azaltzen duen laburpen bideoa aurkeztu da.



Ze da Haurren Hiria?

Tolosan bizi diren 8-12 urte bitarteko haurren iritzia ezagutzeko egitasmoa da. Herriko neska-mutilei hitz egiteko aukera emanez, honako helburua dugu: haurren ikuspegitik herria nola bizi duten jakitea. Horretarako, "Haurren Hiria" nazioarteko proiektua oinarritzat hartzen da Francesco Tonucciren esperientziatik abiatuta.

Pandemiaren araberako egokitzapena

2020-2021 ikasturtean bizi dugun egoerak gure emozio eta sentimenduengan eragin zuzena izan du. Tolosako Haurren Hiria proiektuak haurrei emozio horiek azaleratzen laguntzeko asmoa izan du. Horretarako proiektuaren metodologia egokitu da, talde burbuila bakoitzean saio bereziak bideratuz.

Ohiko egitura:

Haurren iritzia kontuan hartzeko helburuarekin, Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ordezkariak izendatu dira. Gela bakoitzeko ordezkari bat "Haurren Kontseilua"ren parte izan da. Kontseiluko kideak, ikasturtean zehar, sei aldiz elkartu dira: lau saio eskola ordutan, saio bat familiekin eta azken saioa udal ordezkariekin. Guztira, 42 haurren partaidetza ematen da modu zuzenean.

Egitura berezia, pandemia egoerara egokituz:

2020-2021 ikasturtean, ikastetxe ezberdinetan zehazturiko burbuila taldeak kontuan hartu dira, ikasgela ezberdinetako ordezkariak elkartzea ezinezkoa izan baita. Horrela, aurrez aurreko saioak ospatu dira Araziko lantaldeko hezitzaileak ikasgelara bertaratu direlarik. Ikasturtean zehar bi saio egin dira 10 gela ezberdinetan, guztira 20 saio burutu direlarik. Gutxi gora behera 250 haur izan dira Haurren Kontseiluaren parte.

Haurrekin egindako saioak

Helburu nagusia haurrei hitza ematea izan da, Tolosa hobetzeko proposamenak eginez. 2020-2021 ikasturtean haurren emozio eta sentimenduei begira jarri gara. Bizi izandako itxialdia, "normaltasun berria", eskolara buelta... egoera berezi hauek nola sentitu dira, zeintzuk izan dira kezka nagusienak, zerk eragin die ilusioa... Finean, emozio eta sentimenduetatik abiatu gara gure bizitza hobetu ahal izateko, eta etorkizunean etorriko diren erronkei aurre egiteko.

"Gure sentimenduak ulertu, gure bizitza hobetzeko"

Haurren ekarpenak "Tolosatzen Eskola Irekia" egitasmoak abiatutako prozesua elikatzeko baliatuko dira. 2020an zehar helduekin garatutako parte-hartze prozesu arrakastatsua haurrengana hurbiltzeko beharra ikusi delarik. Horrela, haurrek identifikatutako beharrei aurre egiteko ekintza plana diseinatzeko bidea eskainiko du Tolosako Udalak, gurasoei zuzendutako hitzaldiak, tailerra, etab. antolatuz.



Tolosako haurren ondorioak

Denetarikotako iritzi, sentimendu eta bizipenak azaleratu badira ere, honakoak izan dira hurrek azaldutako ondorio nagusiak:

Itxialdian izandako sentimendu atseginak:

- *Familiako kideekin denbora gehiago egotea.*
- *Etorkizun batean konponbidea egongo dela pentsatzea eta horretarako, arduratsuak izan behar direla konturatzea.*
- *Egunerokotasunean momentu jakin batzuk gozatzeko aukera: anai arrebeekin jolastea, balkoira irtetea, etab.*
- *Teknologiaren erabilpena lagunekin hitz egin ahal izateko.*
- *Etxean jolastea eta gauza berriak egitea: mahai jolasak familian, postreak egiten ikastea, musika instrumentuak elkarrekin jotzea, pelikulak familian ikustea, etab.*
- *Etxeke lan gutxiago edukitzea eta denbora libre gehiago edukitzea.*

Itxialdian izandako sentimendu desatseginak:

- *Beldurra, bakardadea, urduritasuna, errudun sentitzea, amorrua, lotsa, EZ esaten kostatzea.*
- *Familiako norbait gaixotzea, kaleko jendeak coronavirusa izan dezakeela pentsatzea.*
- *Lagunekin ezin jolastea, distantzia mantendu beharra.*
- *Etiket / herritik ez ateratzea, familiako kide batzuekin ez egotea.*
- *Musukoaren eta gel hidroalkoholikoaren erabilpena, PCRa egitea.*
- *Ikastolako gaiak gutxiago ulertzea.*

Saio bakoitzaren hasieran emozio eta sentimenduen inguruan aritzea kostatu zaie hurrei, baina amaieran hurrek haien emozio eta sentimenduak azaleratzeko hainbat modu aurkitu dituzte: hitzez, antzetzuz, marraztuz, etab. Saioak aurrera egin ahala, hurrek haien bizipenak azaleratzeko irrika sentitu dute. Egoeraren inguruan kontzientzia handia erakutsi dute jarrera ezberdinak azaleratuz: ulerkorra, baikorra, kritikoa, tonu kexati edo penatuarekin batzuetan, konstruktiboarekin besteetan, baita alaiarekin ere. Ohiturak aldatzeko dugun gaitasuna eta moldagarritasuna balioan jarri da zaintzaren garrantzia, enpatia, eta nork bere buruarekin bakean egoteko gaitasuna azpimarratuz.

Haurren keinu txikiak

Gela bakoitzarekin bi saio burutu dira, honako helburuarekin. Lehen saioan itxialdian bitzako emozio eta sentimenduak aztertu ditugu. Bigarren saioan, aldiz, "Tolosatzen" prozesuaren baitan sorturiko "Keinu txikien aliantza" lantzeko tarte eskaini da. "Orain inoiz baino gehiago, guztion artean Tolosatzen" prozesuaren bitartez herritarrek egindako ekarpenak edo keinu txikiak jaso dira. Keinu txikiak eguneroko bizitzan martxan jarri daitezkeen ohitura onak dira, eta egutegi formatuan jaso dira, hilabete bakoitzean arlo bat jorratu delarik.

Hurrekin Tolosako keinu txikien egutegiari buruz aritu gara, hilabete bakoitzean agertzen den gaiaren inguruan solasalditxo bat egin dugularik. Hilabete bakoitzari zegokion gaia irudiz elikatuta zegoen haur partaideek errazago ulertu zezaten. Hala ere, Keinu txikien egutegiko hainbat gai eta kontzeptu, konplexuegiak izan dira adin tarte batzuetarako. Hau dela eta, urte osoko ikuspegi landu beharrean, astebeteko ikuspegi oinarritu gara. Sentimenduen



asterokoaren bitartez hurrek eguneroko bizitzari erreparatu diote eta astebeteko epean martxan jarri daitezkeen ohitura onak azaleratu dira.

Astelehenean nagitasuna eta logurea azaldu dira, asteburuan berriz, poztasuna gailendu da. Astean zehar askotariko sentimenduak aipatu dira: poza lagunekin egotean, nekea ordutegi estuengatik, "estres" hitza ere agertu delarik. Hurrek haien bizitza hobetzeko ideiak jaso dituzte sentimenduen asterokoan: ez egon hainbeste denbora mugikorrarekin, kalera gehiagotan ateratzea, familia eta lagunekin denbora gehiago pasatzea, elkarren artean ondo eramatea, asperdura eta haserrea onartzea, eguneko momentuak gehiago gozatzea, astelehen goizak dibertigarriagoak izatea, eskolan gehiago marrazteko eta eskulanak egiteko aukera izatea, gimnasioan ibiltzeko denbora libre izatea, lasaiago bizitzea...

Hainbat kasutan herriaren egoera hobetzeko proposamenak azaldu dira: Tolosan bizikletan edo patinetean ibiltzeko zirkuitoak egotea, animaliekin loturiko jarduerak aire librean, zalditokia, igerilekua, baratza... Azken finean aire librean egoteko eta aldi berean lagunekin gozatzeko lekuak eskatu dituzte.

Sentimenduen asterokoan jasotako ekarpenen laburpena:

- Igandetan askok: haserrea, gorrotoa, tristura eta pereza hurrengo egunean eskolara joan behar dutelako.*
- Beste batzuei igandeak gustatu, eguna libre dutelako, lagunekin jolasteko, lo egiteko, familiakoekin egoteko, futbola ikusteko...*
- Gehienek (%80) astean zehar sentimendu astegin eta desatseginak nahastuta*
- Batek egunero urduritasuna*
- Batzuek (%15) aste guztian sentimendu atseginak*
- Gutxi batzuek (%5) aste guztian sentimendu desatseginak*

Hurrek azaldutako keinu txikiak:

- Familiarekin egotea*
- Lagunekin egotea*
- Kirola egitea/entrenamendu gehiago edukitzea*
- Irakurtzea*
- Marraztea*
- Bideojokoetan jolastea*
- Familiarekin mahai jolasetan jolastea*
- Musika entzutea*
- Lasai egotea ni bakarrik*
- Gertatzen zaidana idaztea*
- Perezarekin ez egotea*
- Musukoa kentzea*
- olasak egitea*
- Goizago lokartzea*
- Lo gehiago egitea*
- Nahi dudanean ohera joatea*
- Alde positibo begiratzea*
- Igandetan ez pentsatzea hurrengo egunean eskolara joan behar dela*
- Astelehenak gogoz hastea*
- Gustuko ekintzak ditudala pentsatzea*
- Gustuko ez ditudan ekintzetan ez pentsatzea*
- Dutxa bat hartzea logura kentzeko*
- Korrika egitea pereza kentzeko*
- Bizitza gehiago gozatzea*
- Txangoak egitea*
- Dendetara joatea/Arropa erostera joatea*
- Opor gehiago izatea*
- Zaldian gehiago ibiltzea*
- Txakur bat/untxi bat izatea*
- Ikastolara ez joatea*
- Etxekolan gutxiago*



DBHkoen ordutegia izatea

Jarduera guztietan azpimarratzekoa izan da marrazteko zaletasuna eta bide horretatik sentimenduak adierazteko eta ekarpenak egiteko gaitasuna. Haurren jarrera alaia eta ondo pasatzeko prestutasuna txalotzekoak izan dira.”

**2. AKTA HAU ONARTZEA:
2021EKO MAIATZAREN 27KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA (AKTA
ELEKTRONIKOA).**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

**3. 2021. URTEKO LANPOSTU ZERRENDA BEHIN BETIKO ONARTZEA ETA
HASIERAKO IZAERAZ ALDATZEA. EHBILDUK AURKEZTUTAKO EMENDAKINA.**

Antolakuntza Batzordearen 2021eko ekainaren 17ko irizpena.

AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udalbatzak 2020ko abenduaren 16n egindako bilkuran, beste batzuen artean, erabaki zuen hasierako onarpena ematea Udaleko 2021. urteko Lanpostu Zerrendari.

Bigarrena.- 2021eko martxoaren 17an Lanpostu Zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta 15 lanegunez jendaurrean jarri zen. Informazio publikoko epean bi alegazio egon dira:

- Bata, Liburuzainak egindakoa, aldi baterako izaeraz betetzen ari den liburuzain lanpostuan, A2 taldeko lanpostua izanik, laugarren hizkuntz eskakizuna eskatzeak justifikaziorik ez duela argudiatu du, eta bi liburuzain lanpostuei hirugarren hizkuntz eskakizuna jartzeko eskatu du.

- Bestea, Euskadiko Biologoien Elkargo Ofizialaren ordezkariak adierazi du Lanpostu Zerrendako “Ingurugiro eta Landa eremuko” lanpostuari ezarritako “ingurugiro zientzietako erdi mailako titulazioa” ez dela titulazio egoki bakarra, eta Biologiako gradua (edo lizentziatura) titulazio gisa sartzeko eskatu du.

Hirugarrena.- Horretaz gain, hiru akats material aurkitu dira 2021eko martxoaren 17an egindako argitalpenean:



- Batetik, 6.204 kodea duen "ingeniari teknikoa" lanpostuaren hizkuntz eskakizuna laugarrena dela jartzen badu ere, lanpostu honi dagokion hizkuntz eskakizuna hirugarrena da.

- Bestetik, 8.201 kodea duen "Gazteriako teknikaria" lanpostuan, "300" zenbakia duen titulua azaltzen da eta hau deskribatzen da Goi batxilergo, bigarren mailako Lanbide Heziketa eta baliokideak diren titulazioari dagozkionak bezala, baina kasu honetan, lanpostu honek "400" zenbakia izan beharko luke, hau da, ingeniari tekniko, Unibertsitate Diplomatura (edo lizentziaturako lehen 3 urteak gaindituak) arkitekto-teknikoa, Lanbide Heziketaren hirugarren maila edo baliokideak diren titulazioak.

- Azkenik, 6.102 kode duen "Hirigintzako AOTa" lanpostua, Administrazio Orokorreko lanpostu bat izanik, eskatu zaion titulazioa "Zuzenbidean lizentziatua" soilik agertzen da eta horretaz gain, "Doktorea, ingeniaria, arkitektoa edo baliokidea jarri beharko luke Euskal Funtzio Publikoko legearen 43. artikulua eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 169.2 artikulua baitan.

Laugarrena.- Azkenik, Udaltzaingoa hainbat aldaketa proposatu dira:

- Batetik, 4.101 kodea duen Ofizialaren lanpostuaren ezaugarrietan aldaketa bat proposatu da, betebeharrak bereziki buruzkoa; kasu honetan, lanpostu honek eduki beharko lituzkeen gidatzeko baimenak.

- Bestetik, 4.102 kodea duen Ofizialordearen lanpostuaren ezaugarrietan bi aldaketa nagusi proposatu dira; hizkuntz eskakizunari dagokiona eta betebeharrak bereziki dagokiena, hain zuzen ere, gidatzeko baimenei buruzkoa.

GAIAREN AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

Lehena.- Liburutegiko udal langileak egindako alegazioa dela-eta, bi liburuzain lanpostuei hirugarren hizkuntz eskakizuna jartzeko eskatu du. Bere alegazioa aztertu ondoren, honako ondorio hauek atera daitezke:

- Batetik, bere lanpostuari dagozkion funtzio eta eginkizunak aztertu ondoren, eranskin gisa aurkeztu dituenak, bai laugarren hizkuntz eskakizunari, bai hirugarren eskakizunari dagozkion eginkizunak ditu lanpostuak.

- Bestetik, hizkuntza eskakizunaren aldaketa egiteko Hizkuntz Politikaren sailordetzako txostena beharko litzateke eta bere egunean Udaleko Arrazionalizazio Planean adierazi zen moduan, lanpostu hau laugarren hizkuntz eskakizunarekin sortu zen; horregatik, bere horretan mantentzea proposatu da.



Bigarrena.- Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialak eskatu du Biologiako Graduaren titulazioa ere lanpostua betetzeko titulu baliozkotzat jotzea, "ingurugiro zientzietako erdi mailako titulazioaz" gain.

Behin alegazioa aztertu ondoren, ikusi da lanpostu honen funtzioek ez dutela zerikusirik Biologiako graduaren ikasketekin, izan ere, ingurugiro teknikariaren funtzioak landa eremuko hainbat gairekin erlazio zuzena dute, lanpostuen balorazioaren funtzioen deskribapen proposamenean adierazi den bezala, honakoak hain zuzen ere:

- 1. Lurzoru urbanizaezineko nekazaritza- eta abeltzaintza-proiektuen espedienteen gaineko irizpen teknikoa ematea.*
- 2. Landa-eremuetako azpiegiturak eta bideak mantentzeko eta hobetzeko lanen beharra proposatzea, eta haien kontrola eta ikuskapena egitea.*
- 3. Landa-eremuko bideen erabilera bereziko espedienteen gaineko irizpen teknikoa ematea.*
- 4. Lurzoru urbanizaezinean eraikitzeko eskaera-espedienteen gaineko irizpen teknikoa ematea.*
- 5. Hirigintzako kontsultei, jardueri, katastroari, auzo-bideei eta abarri buruzko irizpen teknikoa ematea.*
- 6. Lurzoru urbanizaezinean zehapen-espedienteak instruitzea.*
- 7. Bere eskumeneko espedienteen gainean ikuskapenak eta txosten teknikoak egitea.*
- 8. Hondakinak zuzen kudeatzen direla zaintzea, eta mankomunitatearen lana ikuskatu eta koordinatzea.*
- 9. Hirigintzako plan eta proiektuetan behar diren ingurumen-txostenak idaztea.*
- 10. Ingurumenaren gainean hezkuntza eta sentsibilizaziorako udal-kanpainak, -proiektuak eta -ekimenak zuzendu eta planifikatzea.*
- 11. Udal-ingurumenaren kalitatea kontrolatzeko ekintzak egitea.*
- 12. Txostenak egitea, landa-auzoetarako dirulaguntzak eskatzeko*

Dena den, ikusirik lanpostuen balorazio prozesu batean murgilduta gaudela eta balorazioa egiten ari den enpresa lanpostu zerrenda berri bat eta titulazioen egokitzapenak egiten ari dela, balorazioa onartu eta titulazio guztiak egokitu arte, bere horretan mantentzea proposatu da.

Hirugarrena.- Udaltzaingoa, hainbat aldaketa proposatu dira bi lanpostutan:



1.- Batetik, 4.101 kodea duen Ofizialaren lanpostuaren ezaugarrietan aldaketa bat proposatu da, betebeharrak bereziki buruzkoa; kasu honetan, lanpostu honek eduki beharko lituzkeen gidatzeko baimenak. Honela, A2/B/E gidabaimenak eduki beharrean, E gidabaimena ez edukitzeko proposamena egin da, izan ere, Ofizial lanpostuan, zerbitziburua izanda, bere funtzio eta eginkizun nagusien artean bere sailaren zuzendaritza eta antolaketa legoke eta ez luke beharko "E" baimena edo karneta bere eguneroko lan jardunean.

2.- Ofizialordearen lanpostuaren (4.102 kodea) ezaugarrietan bi aldaketa nagusi proposatu dira;

- Lehena, hizkuntz eskakizunari dagokiona; kontuan hartuz lanpostu honek dituen funtzioak eta bere lan jardun nagusia bulegoetako kudeaketa eta izapidetzea egitea dela, lanpostu honi hirugarren hizkuntz eskakizuna esleitzea proposatu da, Euskara eta Hezkuntzako buruak egindako txostenean proposatu duen bezala.

- Bigarrena, lanpostu honek, betebeharrak bereziki atalean, A2/B/E gidabaimenak edukitzea eskatzen da, hain zuzen ere, motoa gidatzeko, kotxea gidatzeko eta garabiarekin ibiltzeko baimenak dira. Ikusirik lanpostuak Zuzendaritzarekin harreman estua duela eta bere funtzioak sailaren prozeduren jarraipena, egutegiaren kudeaketa edota zerbitzu operatiboaren planak edota protokoloak egitea dela, gidabaimen horiek edukitzea ez da beharrezkoa ikusten lanpostuaren eginkizunak betetzeko. Horregatik, "E" gidabaimena edo karneta betebeharrak bezala kentzeko proposamena egin da.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehena.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duenak, honako hau ezartzen du 74. artikuluan: *"Administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabili egituratuko dute beren antolamendua"*. Tokiko entitateei dagokienez, beren burua antolatzeke ahalarren beste adierazpen bat da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortua.

Lanpostuen zerrendek jasotako beharko dute, gutxienez:

- Lanpostuaren izena
- Sailkapen profesionalean zein Taldetako den
- Lanpostuaren eskala
- Lanpostua betetzeko modua
- Ordainsari osagarriak

Lehen aipatutako 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 75., 76. eta 77. artikuluetan arautzen dira langile funtzionarioak nahiz lan-kontratukoak sailkatzeko irizpideak.

Bigarrenik.- 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 13. artikuluan eta hurrengoetan arautzen ditu lanpostuen zerrendak, honela arautu ere:



- Administrazio Publikoetako Lanpostuen Zerrenden xedea da: barne-egiturak arrazionalizatzea eta ordenatzea, langile-premiak finkatzea, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztea eta lanpostu bakoitza sailkatzea.
- Lanpostuen Zerrendek lanpostu guztiak jaso behar dituzte, aurrekontuan dotazioa duten guztiak, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behinekoentzat gordetakoak bereiziz.
- Lanpostuen Zerrendek honako hauek adieraziko dituzte lanpostu bakoitzeko: lanpostuaren izena; saila; dedikazio-erregimena; lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean hizkuntz eskakizuna; sailkapen-taldea, eskala, azpieskala edo kategoria lan-kontratuko langileak direnean; osagarriak (destinokoa eta espezifikoa), eta lanpostua betetzeko modua.

Hirugarrenik.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, tokiko entitateak behartzen ditu antolakundean dituzten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarrizko legerian aurreikusitakoren arabera. Halaber, lege honen 90.1 artikulua xedatutakoaren arabera, toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, langileen plantilla onartzea. Zerrenda horretan funtzionarioen, eta lan-kontratuko eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak jaso beharko dira.

Aurrekoarekin kontsonantzian, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarrizko legerian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legearen 90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko dela. TATBko 126. artikulua, 1. 2. eta 3. paragrafoetan arautzen du plantilla prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, zehazten du plantillan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak eta azaltzen du plantilla aldatzeko prozedura.

ONARTZEKO PROZEDURA

Kasu honetan, prozedurari dagokionez, bi ibilbide jarraitu beharko dituzte lanpostu zerrenda aldatzeko proposamen hauek, alegia:

- Batetik, egindako alegazio eta akats zuzenketei dagokienez, TATBko 127. artikulua baitan, 2021eko martxoaren 17an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratu eta 15 lanegunetako epean informazio publikoan egon eta gero, alegazio hauek ebatzi eta behin betiko izaeraz onartuko dira, eta, ondoren, berriro, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratuko dira.

- Bestetik, ofizialordearen lanpostuaren aldaketari dagokionez, TATBko 127. artikulua baitan, plantilla organikoaren prozedura berdinari jarraituz, Udalbatzak hasierako izaeraz onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian 15 laneguneko epean informazio publikoan eduki beharko da onartutako akordio hau. Alegaziorik ez badago, hura onartutzat joko da behin betiko izaerarekin.



- Azkenik, bi kasuetan, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1 i) artikulua arabera, Udaltzako du eskuduntza gai hau onartzeko.

Aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2021eko maiatzaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Ander Figuerido Zubiria eta Kristina Pelaez Errazkin.

Irizpena gehiengoz onartu zuten.

Horretaz gain, honako boto partikular hau adierazi dute EH Bildu taldeko zinegotziek:

“2021 URTEKO LANPOSTU ZERRENDA BEHIN-BETIKO IZAERAZ ONARTZEKO ETA HASIERAKO IZAERAZ ALDATZEKO TXOSTEN PROPOSAMENARI

2021-06-17an ospatuko den Antolakuntza batzordean landuko den gai honi emendakina proposatzen diogu EH Bildu udal taldetik, hain zuzen, irizpeneko hirugarren puntuari dagokiona:

Ofizialaren eta Ofizialordearen lanpostuen ezaugarrietan A2 eta B gida baimenez gain, E gidabaimenaren eskaera mantentzea.

Kontutan izanik bi lanpostu hauen horniketa Barne Promozioz izango dela eta gainerako udaltzaingoko lanpostuek E gidabaimenaren eskakizuna dutela, zuzenagoa iruditzen zaigu, arloko zuzendaritza postuetan daudenei eskakizunak ez murriztea. Honez gain, aurreko batzorde eta plenorako irizpenean udaltzainburuaren txostenean agertzen zen E gidabaimenaren beharra (ofizialordearen posturako), nahiz eta oraingo irizpenean aipatutako udaltzainburuaren txostena kendu den.

Beraz,

Hirugarrena.- Udaltzaingoaren sailean honako aldaketak egitea:

- Ofizialaren lanpostuaren (4.101 kodea) ezaugarrietan A2 eta B gida baimenak eskatzea lanpostua betetzeko.

- Ofizialordearen lanpostuaren (4.102 kodea) ezaugarrietan bi aldaketa egitea: batetik, hirugarren hizkuntz eskakizuna eskatzea eta bestetik, A2 eta B gida baimenak eskatzea lanpostua betetzeko.

jartzen duen atala honela aldatzea:

Hirugarrena.- Udaltzaingoaren sailean honako aldaketak egitea:



- *Ofizialordearen lanpostuaren (4.102 kodea) ezaugarrietan aldaketa egitea: hirugarren hizkuntz eskakizuna eskatzea lanpostua betetzeko.*

EHBILDU Udal taldeak aurkeztutako emendakina bozkatu egin dute. Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoa: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Aurkako botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **ez du onartu** du EHBILDU Udal taldeak aurkeztutako emendakina.

Ondoren, gehiengoz, honako irizpen hau onartzea proposatu zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.- Udaleko 2021. urteko Lanpostu Zerrenda behin betiko izaeraz onartzea, honako aldaketa hauekin:

1.- Liburutegiko udal langileak egindako alegazioa ez onartzea eta liburuzain lanpostuari (8.103.2 kodea) laugarren hizkuntza eskakizuna mantentzea.

2.- Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialaren ordezkariak, "Ingurugiro eta Landa eremuko" lanpostuari buruz (6.301 kodea) egindako alegazioa oraingoz ez onartzea, eta lanpostuen balorazioaren ondorioz egingo den titulazioen egokitzapenean aztertu eta dagokion titulazioa jarriko dela adieraztea.

3.- Hiru akats material hauek zuzentzea:

- Batetik, 6.204 kodea duen "ingeniari teknikoa" lanpostuari hirugarrena hizkuntz eskakizuna jartzea.

- Bestetik, 8.201 kodea duen "Gazteriako teknikaria" lanpostuan, "400" zenbakia duen titulua jartzea.



- Azkenik, 6.102 kodea duen "Hirigintzako AOTa" lanpostuan, Zuzenbidean lizentziatua, doktorea, ingeniaria, arkitektoa edo baliokidea jartzea.

Bigarrena.- Lehen puntuan xedatutako irizpen proposamen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratzea.

Hirugarrena.- Udaltzaingoan honako aldaketa hauek egitea:

- Ofizialaren lanpostuaren (4.101 kodea) ezaugarrietan A2 eta B gidabaimenak eskatzea lanpostua betetzeko.

- Ofizialordearen lanpostuaren (4.102 kodea) ezaugarrietan bi aldaketa egitea: batetik, hirugarren hizkuntz eskakizuna eskatzea, eta, bestetik, A2 eta B gidabaimenak eskatzea lanpostua betetzeko.

Halaber, bi lanpostu horiei dagozkien aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratzea, 15 lanegunetan informazio publikoan edukitzeko“.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa eta Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoa: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu** du 2021. urteko lanpostu zerrenda behin betiko onartzea eta hasierako izaeraz aldatzea.

4. ONARTZEA TOLOSAKO UDAL KIROL-INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALERAKO ZERBITZUEN EMAKIDA-KONTRATUA ARAUTUKO DUEN ADJUDIKAZIOAREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.

Alkateak gai hau mahai gainean uztea proposatu du. Beraz, Udalbatzak aho batez erabaki du gaia mahai gainean uztea.



5. ONARTZEA ITXITAKO EKITALDIKO FAKTURAK.

Antolakuntza Batzordearen 2021eko ekainaren 17ko irizpena.

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten den fakturak 2018ko ekitaldiko faktura data du eta 2021ean jaso da, ondorengo taulan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2021-05-20	2018-12-31	TOLOSALDEA BUS, S.L.	270/18	TOLOSA-ZUMAIA-TOLOSA AUTOBUSA 3 EGUNETAN	840,00

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrerri dagokienez. 2020ko abenduaren 31an aipatutako obligazioa onartu gabe zegoen eta 2021eko aurrekontutik onartuko da. Beraz, faktura hau onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin dute, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Itxitako ekitaldiko faktura hau onartzea:

FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KOPURUA
2018-12-31	TOLOSALDEA BUS, S.L.	270/18	840,00

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de



Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du ltxitako ekitaldiko faktura.

6. HASIERAKO ONARPENA: 2021EKO DIRULAGUNTZEN ERANSKINA
ALDATZEA: 2-2021.

Antolakuntza Batzordearen 2021eko ekainaren 17ko irizpena.

2021eko dirulaguntzen eranskinean, aldaketa hau sartzea proposatu da:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin-betiko Aurrekontua 2021	Mota
0900.481.01.335.10	GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELK.	Ahozketasuna eta bertsolaritza	29.453,99 €	Izenduna
0900.481.01.335.10	UEMA	Urteko ekarpena	24.707,01 €	Izenduna

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak:

Xabier Balerdi Tolosa
Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Beloso
Garbiñe Marzol Ormazabal
Ander Figuerido Zubiria
Kristina Pelaez Errazkin
Jose Mari Villanueva Telleria

Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehena.-Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa honi hasierako onarpena ematea eta eranskina honela uztea:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin-betiko Aurrekontua 2021	Mota
0900.481.01.335.10	GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELK.	Ahozketasuna eta bertsolaritza	29.453,99 €	Izenduna
0900.481.01.335.10	UEMA	Urteko ekarpena	24.707,01 €	Izenduna



Bigarrena.- Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren, 2021eko dirulaguntza eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du hasierako onarpena ematea 2021eko dirulaguntzen 2-2021 eranskinaren aldaketari.

7. MOZIOA: EKAINAREN 28A. GAY, LESBIANA, TRANSEXUAL, BISEXUAL, INTERSEXUAL ETA QUEER-EN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA.

Mozioak honela dio:

“52 urte igaro dira Stonewall tabernako gertakarien datatik; gau hura historikoa da lesbiana gay, transexual, intersexual eta queerren askapen mugimenduarentzat. Gau hartan, sexu eta genero desberdineko jendea isolaturik egoteari utzi eta elkartu egin zen, sistemari aurre egiteko, beren eskaerak agerian jartzeko, ikustarazteko eta borroka egiteko diskriminatzen zituen sistema baten bidegabekeriaren aurka.

Era berean, 10 urte beranduago, beranduago, 1979ko ekainaren 10ean, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuen Erretereriako diskoteka batean, trabesti izateagatik. Ekainaren 28 hartan, LGTBIQ pertsonak eta kolektiboak Euskal Herriko kaleak hartu zituzten, sexualitatea eta generoa modu librean bizitzeko aldarrikatzeko.

Pandemiak urtebetetik gora daraman epe honetan lesbianak, gayak, bisexualak eta transexualak aurre egiten ari dira elkarren artean gurutzatzen diren era askotako diskriminazioei, zergatia izanik beren genero-identitatea eta/edo sexu-orientazioa, edo beste desberdintasun-faktore batzuk: migratzaile izatea, gaztea edo nerabea, adinekoa edo dibertsitate funtzionala duen pertsona. Kolektibo horretan gertatzen diren desberdintasun-, bazterketa- eta marjinazio-egoerak areagotzen ari dira.

Gainera, bildutako informazio eta datu askoren arabera (Ikusgune, ILGA, LGBTI Nazioarteko Elkarte), azpimarratu behar da transfobia nabarmen ari dela handitzen. Pertsona horien bizi-baldintzak prekarizatzeaz eta okerrera egiteaz gain, areagotu egin dira LGTBIQ pertsonen aurkako indarkeriara bultzatzen duten gorroto-adierazpenak,



zeinek oso egoera kezkarria eragin baitute. Adierazpen horiek azalera atera dira *Pertsona Transen Berdintasun Erreal eta Eraginkorrerako Legearen proposamena dela eta*.

Pandemiak geroa aldatu behar omen zuen. Normaltasun berri honetan, ordea, ezer gutxi aldatu da LGTBIQ pertsonentzat, edo/eta gizarte-ereduak ezartzen duen arauetako disidenteak direnentzat. Haientzat diskriminazioa eta bazterkeria itzuli dira berriro ere.

Eta horrek ezin du horrela izan. Aurrera egin behar dugu gizarte errespetuzkoago, justuago, duinago, bizigarriago eta askeago baterantz. Eta Udal honek berretsi egin nahi du LGTBIQ pertsonen eskubideekin duen konpromiso politikoa, ez gaur bakarrik, urteko egun guztietan baizik.

Arrazoi horiengatik, Tolosako Udalak LGTBIQ pertsonen jasaten duten diskriminazioa gaitzetsi nahi du eta konpromisoa berretsi sexu-orientazio eta genero-identitatearen ondoriozko aurreiritzien aurka borrokatzeko. Izan ere, pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko erantzukizuna dugu, eta zaindu behar dugu LGTBIQ bezalako kolektibo zaurgarrienen eskubide horiek izatea.

Horregatik, Tolosako Udaleko talde politikoek adosten dute Osoko Bilkura honetan honako hau egiteko konpromisoa hartzea:

- Hausnarketa egitea covid-19ak eragindako krisiaren ondorioz LGTBIQ pertsonen duten egoerari buruz, beste erakunde, kolektibo eta gizarte-eragile batzuekin koordinatuta.

- II. Udal Protokoloan indarkeria matxista mota guztien aurrean arreta, jarraipena eta erantzun publikoa sartzeko espazio fisiko eta sinboliko haietan zeinetan indarkeria matxista horiek jasaten baitituzte genero-eskema tradizionalak hausten dituztenek, alegia, intersex, transgenero, transexual, homosexual, lesbiko, eta sexu/genero tradizionalaren eskema erreproduzitzeari uko egiten dioten emakume eta gizonek. Gainera, LGTBIQ pertsonen aurkako gorroto-diskurtsoak identifikatzeko mekanismoak eta aurre egiteko ekintzak ezarriko dira.

- LGTBIQ pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatzea, hala nola: administrazio-formularioetan aldaketak egitea binarismoa gainditzeko, eta aldagelak eta komunak egokitzea instalazio publikoetan.

- Lesbofobia, homofobia, bifobia eta transfobiaren kontrako informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak garatzea, erreferente positiboak sortzeko maitasun- eta sexu-dibertsitatea bizi ahal izateko, eta kontzientzia kritikoa sortzeko sexu-genero dikotomiari, heteronormatibitateari eta sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen adierazpen-aniztasunari buruz. Herritarren kontzientzia solidario berri baterantz aurrera egitea eta berdintasun eta errespetuzko balioetan gizarte-kohesioa segurtatzea, eta diskriminaziorik ezaren kultura zabaltzea kolektibo horiek jasaten dituzten eraso eta aurreiritzien aurrean.

- Jabetze Eskolan, prestakuntza-, hausnarketa- eta eztabaida-jarduerak bultzatzea, berdintasuneko harreman-eredu anitzak sortzeko eta LGTBIQ pertsonen jasaten dituzten indarkeria matxistei aurre egiteko tresnak izan ditzaten.



- Hezkidetzeta-proiektuaren bitartez, Tolosako ikastetxeei beharrezko tresnak ematea, diskriminazio hau txikitatik jasaten ari daitezkeen ikasleei laguntzeko. Eta irakasleei ere laguntzea, maitasun- eta genero-dibertsitatearekiko errespetuari behar bezala heldu ahal izateko tresnak eta ikasmaterialak emanda.

Herritarrei eskatzen diegu, beraz, sentsibilizazio- eta aldarrikapen-ekitaldi guztiekin bat egin dezatela, eta foro publikoetatik, komunikabideetatik eta sare sozialetatik erakuts dezatela gaur aniztasunaren aldeko borroka-eguna dela, eta balkoietan eta leihoetan bandera zintzilika dezatela.

Azkenik, herritar guztiak animatzen ditugu parte har dezaten E28ko sentsibilizazio kanpaina honen barruan antolatu diren jardueretan.”

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Ander Figuerido Zubiria, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du mozio hau: Ekainaren 28a. Gay, lesbiana, transexual, bisexual, intersexual eta queer-en eskubideen nazioarteko eguna.

8. TORTURAREN BIKTIMAK BABESTEKO NAZIOARTEKO EGUNEKO MOZIOA.

Gaia mahai gainean geratu da zinegotzi guztiak ados daudela.

9. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Besterik gabe, 20:50ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, jarduneko idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA
O.e.

JARDUNEKO IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IPLE0006-2021-06-30 Ohiko osoko bilkurako akta/2021-06-30 Ohiko